



AZAROAK 25 ESLOGAN LEHIAKETA 60 URTETIK GORAKOENTZAT

Eguesibarko Udaleko Berdintasun Alorrak eslogan lehiaketa baterako deia egin du, Heldutasun Aktiboaren Zerbitzuarekin elkarlanean, Emakumearen kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunerako.

Helburua indarkeriari aurrea hartzea da, eta horrekin batera, berdintasunezko tratua aldeko sentsibilizazioa egitea eta, esloganen bidez, gizonen eta emakumeen arteko tratua on eta berdintasun kontzeptuak transmititzea, betiere desberdintasunak eta indarkeriazko egoerek adinekoengan duten eraginean arreta berezia pausatuta.

1. Gaia

Esloganek mezu zuzen eta argia eman beharko dute, eta mezu horrek zerikusia izan beharko du tratua onekin, errespetuarekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, eta/edo indarkeria ezabatzearekin. Ez da onartuko pertsonen osotasuna kaltetzen duen esloganik.

2. Parte-hartzaileak

Kategoria bakarra dago, hots, 60 urtetik gorakoentzat.

3. Esloganen ezaugarriak

Esloganek gehienez 8 hitz izan behar dituzte. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 3 eslogan aurkeztuko ditu.

4. Izen-ematea

Izen-ematea doakoa da eta esloganak aurkeztean eginen da. Esloganek argitaragabeak izan beharko dute, hau da, ez argitaratuak eta ez beste lehiaketa batzuetan aurkeztutakoak. Hizkera barnerraztekoa eta errespetuzkoa erabili beharko dute. Ez dira baloratuko baldintza hori betetzen ez duten esloganak.

5. Lanak aurkezteko epea

- Esloganak azaroaren 20ra arte aurkezten ahalko dira.
- Honako helbideotara bidaliko dira posta elektronikoz:
 - promocionautonomia@egues.es
 - igualdadberdintasuna@egues.es



- Halaber, paperean aurkezten ahalko dira Eguesibarko Familiei Arreta Egiteko Zentroan (FAZ), Urbasa k., 129 – Telefonoa: 948 16 56 51
- Honako datu pertsonal hauek eman behar dira: izen-abizenak, posta-helbidea, harremanetarako telefonoa eta NANaren fotokopia.

6. Epaimahaia

Hona hemen epaimahaikideak:

- Gazteria, Emakume eta Genero Berdintasun arloko zinegotzi ordezkaria
- Berdintasun Teknikaria
- FAZeko Heldutasun Aktiborako eta Norberaren Autonomia Sustatzeko Zerbitzuko kide bat eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko kide bat.
- Honatx esloganak baloratzeko irizpideak: kalitatea, originaltasuna, sormena, eta argitasuna mezuaren transmisioan.

7. Sariak

Lehen sari bat emanen da, hots, 50 euroko txartel bat, Ibarreko saltokietan erosketak egiteko, eta bigarren sari bat, 25 euroko txartela.

8. Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa Epaimahaiak azaroaren 23an hartuko du erabakia. Lehiaketan aurkeztutako esloganak Udalaren webgunean argitaratuko dira, bai eta udalaren sare sozialetan ere. Epaimahaia irabazleekin jarriko da harremanetan sariak emateko.

9. Eskubideak

Lan sarituak Eguesibarko Udalaren jabetzapekoak izanen dira. Udalak badu eskubidea eslogan sarituak argitalpen eta foiletoetan erabiltzeko, betiere irabazi-asmorik gabe eta egilea nor den adierazita.

10. Onarpena Lehiaketan parte hartzeak oinarriak eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar berekin.